

## Aita León amairu-garrenari



Ezkutatzero dijuakigu  
eliz buru zai umilla,  
penaz malkotan utzirik bere  
maite zuben ardi-pilla,  
¡ai! onen arzai maitagarriyak  
ez dira jaio oi milla.  
Salto aundi bat beruntz eginta  
galdurik bere goi mailla,  
utsik utzi du eserlekutzat  
zeukan San Pedro-ren silla;  
denen naieran au betetzea  
nola izango dan zailla,  
jaunak deigula beste arzai bat  
Leon zan bezin abilla.  
Onek munduban, gorputz santuba  
lotan utzirik gaurilla,  
bere anima egan joan zaio  
beste mundubaren billa,  
eta sariztu dediñ zeruban  
erdiyan gerta dedilla.

RAMÓN ARTOLA.

